

ZOZKETAREN OINARRIAK

2023KO FIAT PANDA HIBRIDO BATEN ZOZKETA

LABORAL KUTXAREN LK PAY APLIKAZIOAREN 2023KO ABENDUKO KANPAINA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta zk.g., 20500— duenak, sustapen-helburuetarako nazio-mailako ZOZKETA bat egingo du, 18 urtetik gorako bezeroen artean LK Pay aplikazioa deskargatu eta erabiltzea sustatzeko, 5. atalean, «Parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko ez da kuota edo kopuru gehigarririk ordaindu beharko.

3.- Zozketaren xedea eta prozedura

Zozketa bat (1) egingo da, eta honako hau izango da saria: **FIAT PANDA MY23 Panda 1.0 Hybrid 51 kW (70 ZP) ZINEMA-BELTZA**. Sariak honako hauek hartzen ditu barne: ixte-sistema zentralizatu aginteduna, altuera doigarridun bolantea, aire girotua, aurreko beira-igogailu elektrikoak, atzeko beira termikoa, 6 abiadurako eskuzko aldagailua, Hybrid logoa, 36 cm-ko (14"-ko) edergarriak dituzten hagunak, Dualdrive serbodirekzio elektrikoak, DAB irratia bluetootharekin eta 13 cm-ko (5" ko) USBarekin, ESC (egonkortasuna kontrolatzeko sistema), bidaiariaren eguzkitako ispiluduna, atzerailsu beltzak, gidariaren airbaga, laguntzailearen airbaga, kanpoko tenperatura-sentsorea, zinema-beltza, start&stop sistema, urban kolorea barruan aukeran, alboko airbagak, Ciao Fiat laguntza-txartela, pneumatikoen presio-sentsorea, korrante-hargunea (12 V), argibide-liburua gaztelaniaz, zulatuak konpontzeko kitaren etiketa.

Zozketan parte hartzeko, erabiltzaileek baldintza hauek bete behar dituzte eta jarraian adierazten diren ekintzak egin:

- LABORAL Kutxaren bezero diren adin nagusiko pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2023ko azaroaren 20tik 2024ko urtarrilaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK Pay aplikazioa erabiliz Mugikordainketa bat egiten badute, LK Pay aplikazioko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute edo LK Pay aplikazioko Bizum zerbitzuaren bidez online ordaintzen badute. Gehienez, 5 partaidetza eskuratu ahal izango dira Bizum eragiketen bidez (dirua bidaliz edo jasoz eta online ordainduz) eta 5 partaidetza Mugikordainketaren bidez (LK Pay erabiliz); gehienez 10 partaidetza bezero bakoitzeko, beraz.
- Irabazleak saria onartzen badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren izena eta saria ematean ateratako argazkiak (baldin badaude) LABORAL Kutxak egoki deritzen baliabide telematiko edo inprimatuetan argitaratzeko, zozketaren emaitzaren berri emateko.

4.- Iraupena eta eremua

Eremu geografikoak Espainia osoa hartzen du. Zozketa 5. puntuari aipatzen diren parte-hartzaileen artean egingo da, baldin eta goian aipatutako ordainketak egiten badituzte 2023ko azaroaren 20tik 2024ko urtarrilaren 31ra bitartean, biak barne.

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan: LABORAL Kutxaren bezero diren eta egoitza Espainian duten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek, baldin eta 2023ko azaroaren 20tik 2024ko urtarrilaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK Pay aplikazioa erabiliz Mugikordainketa bat egiten badute, LK Pay aplikazioko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute edo LK Pay aplikazioko Bizum zerbitzuaren bidez online ordaintzen badute.

Kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak; taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileak, eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonak. Auto hau zozkatuko da: **FIAT PANDA MY23 Panda 1.0 Hybrid 51 kW (70 ZP) ZINEMA-BELTZA**. Agiri honek kanpainaren baldintzak jaso eta zehazten ditu. Egoera hauetako batean dauden LABORAL Kutxaren bezeroek ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango:

ZOZKETAREN OINARRIAK

2023KO FIAT PANDA HIBRIDO BATEN ZOZKETA

LABORAL KUTXAREN LK PAY APLIKAZIOAREN 2023KO ABENDUKO KANPAINA

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan daudenek zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzen dutenek zozketan.

6.- Irabazlea eta ordezkioak aukeratzea eta saria jakinaraztea eta ematea

Aurreko 3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2024ko otsailaren 9an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez. Bidezko arrazoiren batengatik egun horretan ezin bada zozketa egin, hurrengo egun baliodunean egingo da. Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulego batean sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun baliodun bateko (1) epean. Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio, edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Bezero saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago edo lehenago azaldutako onespena ematen ez badu, saria ordezkioen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezingo du sari horren ordezkio beste bat eskatu. Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, helburu horrekin berariaz aukeratutako ordezkioari emango zaio.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipearen zenbatekoa. Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkinek edo iritziak argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desegokitzat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzakete. Era berean, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinek beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mintzearen ondoriozko kalteengatik.

9.- Erreserbak eta mugak

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira. Zozketan zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu. LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere. Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi batean erabiltzerik ez egotearen edo haien funtzionamendua eten izanaren, erabiltzaileek horiek iruzurrez erabiltzearen eta, bereziki baina ez esklusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izandako akatsen ondorioz gertatzen diren kalte-galerengatik. LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean. LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere. Halaber, enpresa antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean kalte-galeraren bat suertatzen bada.



ZOZKETAREN OINARRIAK

2023KO FIAT PANDA HIBRIDO BATEN ZOZKETA

LABORAL KUTXAREN LK PAY APLIKAZIOAREN 2023KO ABENDUKO KANPAINA

10.- Datuen babesaz

Datuen tratamenduz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta zk.g., 20500 - Arrasate, Gipuzkoa). Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak tratatu egingo dituela lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak, batetik zozketako parte-hartzea tramitatzeko, bestetik irabazlea izanez gero sariaren berri emateko eta, azkenik, saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte-hartzaileak. Horretarako, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) protecciondatos@laboralkutxa.com; helbide elektronikora idatzi beharko du, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara jo: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta zk.g., 20500 - Arrasate, Gipuzkoa. Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur daiteke: <https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

11.- Oinarriak onartzea

Zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sortzen diren erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.